

TALAIAN

Lan erreforma edo finantza erreforma?

Bankaren arduradunek (Espainiako Bankua, Europako Banku Zentrala, BBVA, Santander...) eta patronalekoek herritarrek estutzen gaituzte kaleratzea merkatzeke, soldat-ak jaisteko eta babes soziala murrizteko. "Lan erreforma" deitzen diotenaren neurri-sorta da hori; beharrezkoa, diote, gaur egungo finantza krisitik ateratzeko. Lehenengo patronala izan zen, gero banku pribatu handietako presidentek, eta joan den astean, Espainiako Bankuko eta Europako Banku Zentralekoak, apustu horrekin tematu direnak. Agintean dagoen kapitalismo basatiaren eta bera ordezkatzeko duten alderdi politikoen apustua da. Ez dute lotsarik foro publikoetan, egun batean bai eta bestean ere bai, kontu hori ateratzeko. Hori bai, foro horietan euren ekimenak txalotzen dituzten enpresari eta bankariez inguraturik egoten dira, enpresariak mozkin handiagoak lortzen jarraitzeko eskatzen dituzten ekimen berdinak baitira, krisian gauden arren.

Horrelako lan erreformarekin ausartzen direnak dira, hain zuzen, langabezia zifra larriak sortzen ari den krisi ekonomikoaren arduradunak. Horiek ez dute finantza erreformarik proposatzen. Nahi dutena da langileak izatea, erreformen bidez, beraiek eragindako krisitik aterako dituztenak. Orain-txe bertan premiazkoa da gaur bezalako krisia ezinezko egingo duen egiazko finantza erreforma. Hipoteka-basurak eta merkatuen kutsadura eragotziko duten neurriak premiazko-ak dira. Neurriak espekulazio operazioei ihes egiteko; ban-karien eta exekutiboen soldata milioioidunak eragozteko; kapitalista eta bankariak ezkatzen diren paradisu fiskalak ezabatzeke; enpresa eta kontsumitzaileei kredituak errazte-ko; mozkinak eta dibidenduak kontrolatzeko... Gaur, pre-miazkoena, finantza erreforma da. Langileak nahikoa lan erreforma jasaten ari dira.

Juan Mari Arregi

Rikardo Arregi saria Gorka Bereziartuarentzat

ARGIAKO KAZETARIAK Rikardo Arregi Kazetari Berria saria jaso zuen joan den asteburuan, Andoaingo Udalaren eskutik. ARGIA aldizkarian argitaratutako artikuluetan erakutsitako sena, kritikotasuna eta ausardia saritu ditu epaimahaiak. Saria jasotakoan Bereziartuak (Hernani, 1984) hitz hauek egin zituen: "Euskarazko kultur produktu 'izar' bat kritikatzeko, argudio asko emanda bada ere, arrisku handiko kirola da gaur egun. Kazetariak, hala ere, erabakitzen badu bustitzea, iritzia ematea, kultur produktu hontaz edo hartaz zer uste duen esatea, eta iritzia oso onbera ez bada, eskandalu txiki bat sortzen da, jarraian funtsik gabeko eztabaida bat, eta azkenean, kazetaritza da galtzen ateratzen dena".

Sari Nagusia Olatz Simon ETBk Txinan duen korrespontsalak jaso zuen. Epaimahaiaren Sari Berezia Euskadi Irratiko *Kostaldeko tren*a saioko lantaldeak irabazi zuen eta Ohorezko Aipamena Tipi-Ttapa komunikazio egitasmoak.

BAHEA

Gotzon Barandiaranek Gaur 8n esanak: "Orain, alderdi abertzale espainola Ajuria Eneko agintean dagoela profitatuz, euskarazko kulturari abertzale kutsua kendurik orain arte arreta fisik jarri ez dioten gure herrikideengana hurbiltzeko ahalegina eskatu zigun Martinez de Lunak ARGIA-n. Gauza bera egingo ote dute espainolek, frantziarrek, ingelesak eta amerikarrek? Euren kulturari kutsu abertzalea kenduko ote diote euren kultura derrigorrez kontsumitu behar dugunok uzkurak izan ez gaitezen?"



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso [hari@DOAN](mailto:hari@doan.euzkadi.net) e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

ARGIA.COMek Interneten aritzeko kazetaria behar du

Eskatzen da:

- Interneteko kazetaritza esperientzia
- Bideogintza esperientzia (grabazioa, edizioa)
- Euskalgintza eta euskarazko merkatua ezagutzea

Kontuan hartuko da:

- Antzeko lanetan eskarmentua
- Multimedia euskarrietan lan egiten jakitea (animazioak, infogramak...)
- XHTML lengoaiarekin eta CSS estiloekin lan egiten jakitea
- Programazio ezagutza izatea
- Frantsesaren eta ingelesaren ezagutza
- Taldean lan egiteko gaitasuna

Lanpostuan interesa izanez gero, uztailaren 7a baino lehen, "Kazetaria" erreferentzia adieraziz.



Garroña 2011: garaipena atzamar puntetan

GARONA-KO zentral nuklearra 2011n itxiko da azkenean. Ez da onena, baina ezta txarrena ere. Egia esan, aukera okerren artean zuzenetakoa da, betetzen bada bederen eta jadanik badirudi Espainiako Gobernuak oso gaitza izango lukeela atzera egitea. 40 urte egitean itxiko litzateke modu horretara, eta Espainiako Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak emandako aholkuaren aurka; duela gutxi erakunde honek erreforma batzuk eginez gero zentralak beste hamar urtez lanean jarrai zezakeela ebatzi zuen.

Erabaki hau ekarpen bat gehiago da nuklearrik gabeko Espainia horretarantz eta, zalanza barik, lasaia go lo egiteko arrazoi bat gehiago ere euskal herritarrentzat.

Familia asko bizi da zentraletik, baina langileen egoera ezin da arrazoi nagusi bilakatu, euren ogibidea gainerako biztanleentzat arriskua eta zabor nuklearraren hipoteka badakar. Langileei bestelako irtenbideak topatu behar zaizkie eta, horretan bai, erakundeek zerikusi handia dute. Baina baita zentrala kudeatzen duen Nukleorrek berak ere, zentral batek legez iraupen zehatza baldin badu, eta hori egiaz sinesten bada, bere bizi garaiko etekinen zati bat bertako langileen eta

eskualdearen etorkizuna prestatzera bideratu beharko litzatekeelako.

FISKALAK bat egin du Egunkaria auziaren defentsarekin eta auzia behin-betiko ixtea eskatu zuen joan den astean. Botin auziaren jurisprudentziaren erabilera izan da auziaren itxiera eskatzeko orain arteko argudio nagusia, baina orain defentsak bigarren bat ere erabili du eta akaso lehena baino sendoagoa gainera: alegia, ezin da Egunkaria auzian erabili jadanik 18/98ko auzipetuak zigortzeko erabili den dokumentazio bera. Auzi hartan, 90eko hamarkadaren hasieran ETArri atzemandako paper entzutetsuak medio –Udaletxe proiektua...– ETArekin harremana zuen egunkaria *Egin* zela ondorioztatu zuten, beraz ezin da *Egunkaria* izan; eta gainera, Xabier Alegria 18/98koan zigortua dago horrexegatik eta ezin da pertsona bat birritan gauza beragatik auzipetu.

Hemerotekara jo dut eta ikusi dut *El País*-eko Jose Yoldi kazetariak 2008ko maiatzeko artikulua batean jadanik aurreratzen zuela orain fiskalak egin duena gerta zitekeela. Lehengo ezaguna bazen ere, informazio horretan aipatzen du, halaber, nola

2001ean Guardia Zibilaren kapitain bat Egunkaria Auzia irekitzeko eskaerarekin joan zitzaion Baltasar Garzoni eta honek atzera bota zuela, paper horiekin Ekin-eko auzia jorratzen ari zelako, eta ez zuelako helduleku juridikorik ikusten. Juan del Olmo epailearengana joan zen orduan, honek auzia onartu eta hortik aurrerakoa ezaguna da guztiontzat.

Baina Garzonek 2001ean bakarrik ez, 2003ko otsailaren 26an ere, *Egunkaria* operazioko lau atxiloturi jarritako espetxe aginduaz informatzen zutenean, Yoldik berak aipatzen zuen Baltasar Garzonek dokumentazio hau erabilia zuela 1998an *Egin* ixteko. Alegia, Auzitegi Nazionalean askok oso argi zutela juridikoki auziak duen ahuleziaz. Euskal gizartearen gehiengo oso zabalak hasieratik argi izan du Egunkaria auziaz PPK egin zuen erabilerak politikoa. Orain badirudi “patata beroa” juridikoki ere gainetik kentzeko bidea egiten ari dela, eta logikoena hori litzateke, baina erabakia tribunalaren esku da oraindik. Ebazpen hau Egunkaria auziko atal nagusiari dago lotua, baina pentsa liteke fiskala eta defentsen eskaria onartzen bada, atal ekonomikoaren ikuspegia ere asko aldatuko litzatekeela.

gure!
arteak
euskaraz

